

LIZITAZIO IRAGARKIA

1.- Erakunde esleipen emoilea

- a. Erakundea: Bermeoko Udala.
- b. Espedientearen tramitatzaila: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila
- c. Espediente zenbakia: 6.2.1/ 2-15

2.- Kontratuaren xedea

- a. Zehaztapena: Talako kantinaren zerbitzua ematea.
- b. Burutzeko lekua: Bermeon.
- c. Burutzeko epea: Urte biko iraupena. Luzapena: urtero luzatu ahal izango da gehienez lau urte bete arte.

3.- Kontratuaren prezioa: Esleipenduna behartuta egongo da Bermeoko Udalari hilero ondoko kanona ordaintzera gutxienez 350 €.

4.- Behin-betiko bermea: 500 euro.

5.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

- a) Erakundea: Urigintza, Obra eta Ingurumen saila edo Berh@z bulegoa.
- b) Helbidea: Intxausti kalea 2 edo Ertzilla kalea 6-8
- c) Telefonoa: 946179124 edo 946179191
- d) E-mail-a: urigintza@bermeo.org edo berhaz@bermeo.org

6.- Proposamenen aurkezpena

a. LEKUA: BERH@Z BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 Bermeo
ORDUAK: Asteleheneretik barikura 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. *Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

EPEA: 15 egunetan, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Kontratu bereziaren administrazio-baldintza zehatzen orrian zehazten dana.

7.- Esleipena

Proposamenak, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita gehienez hilabeteko epean irekiko dira.



Esleipena gehienez bi hilabeteko epean egingo da proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

Esleipena egiterakoan, honako irizpide honeek hartuko dira oinarritzat:

- Irizpide kuantifikatzaileak: 50
- 1. Eskaintza ekonomikoa: eskaintza ekonomikorik altuena 50 puntu arte
Eskaintza ekonomiko altuenari 50 puntu emongo jakoz eta lizitazio prezioari 25. Gainontzeko eskaintzak proportzionalki puntutatuko dira.
- Balio-judizioaren menpeko irizpideak: 50
- 2. Memoria teknikoa: 35
 - Zerbitzuaren antolaketa eta proposatuko dan ustiapen-plana: 20
 - Administrazioak jarritako materialaz gain enpresarioak ipiniko dituen elementuen kalitatea, originaltasuna eta itxura. Hauek ingurunearekin kontsonantzian egon beharko dira. Debeekatuta gelditzen da plastikozko altzariak ipintzea eta baita merkatal publizitatea edo babesa dutenak ipintzea bai kantinearen barruan zein terrazan: 10
 - Kontratuaren objektu diran espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa, hondakinen kudeaketa sistema: 5
- 3. Lizitatuzaileek aurkeztutako hobekuntzak eta zerbitzua hobetzeko balio dabenak: 10
- 4. Bertan lan egingo daben langileen prestakuntza: 5

8.- Iragarki gastuak: esleipendunaren kontura.

Bermeon, 2015eko maiatzaren 6an
ALKATEA

